

Onomastique du Nord du Pays Basque (XIe-XVe siècles)

Azkenean horra Eugène Goyenecheren lan nagusietarik bat denen eskutan izanen dena, *Onomastique du Nord du Pays Basque (XIe-XVe siècles)* deitzen dena. Hitza jatea ez da nehun ere preziatzen den gauza, are gutiago anitz idazten ez duten Euskaldunen artean. Eta luzaz itzalean egon den lan interesgarria plazer handiz egun plazaratzen dugu Sara herri ospetsuan.

Aspaldi badu Eugène Goyheneche zenari haren lanaren argitaratzea zor geniola. Aspaldi ere gure buruari hitzeman geniola haren tesia mamitsua adalatzea. Euskaltzaindiari esker uste dut gaur zor hori kitatu dugula Eugèneren eta onomastikaren onetan. Eskerrak lan honetan lagundu gaituztenei, hala nola Annie Etcheverry Euskaltzaindiko idazkariari, eta Rikardo Badiolari ; eskerrak ere Artitz-Ekhi Videgain Luzarri egin duen indezarengatik nahiz azkenean liburuan ez dugun sartzerik izan. Eskerrak beroenak Euskaltzainburu den Andres Urrutia jaunari lanaren aitzinamenduari hurbiletik so egin baitio. Eskerrak Frantxoa Maitiari, Euskal Erakunde Publikoak eman digun laguntzarengatik.

Erdi Aroko Iparraldeko onomastikari buruzko tesi hau Eugène Goienechek defenditu zuen Bordeleko Unibertsitatean 1966ko ekainean, duela beraz 46 urte. Epaimahaikoak lehen mailakoak ziren, C.M. Higounet, Y. Lefèvre eta M. Monfrin historia-erakasleak eta bestalde R. Lafon euskalari ospetsua. Orduan E. Goyheneche CNRSko ikerlari zen alde bat eta bere ikerketak bukatu zituen "Ecole des Chartes" famatuan.

Onomastika zer den ezaguna da, hots izen bereziak ikertzen ditu, leku-izenak nola jende-izenak. Alegia deus ez, eskatzen du jakitate mota anitz metatzea eta antolatzea. Vendryes hizkuntzalariak erraten zuen zientzia bihurtutua eta lanjerosa dela esperientziak ematen duen zuhurtasunik gabe ez delakoan onomastikako gaietan ibili behar. Eugène jakintsua zen eta onomastikan zuhurra.

Tesia hiru partetan antolatu zuen.

Lehenbiziko partean han hemenka barreatuak ziren leku eta jende izenak biltzen ditu, 8000 izen hor nonbait. Aipatu behar da Nafarroako artxiboak izigarriko iturri onak izan zaizkiola E. Goihenecheri bai eta ere Londresen ziren dokumentu batzuk.

Bigarren partean, Euskal Herriko jendea zein tokitan bizi zen, herriak nola handitu eta aldatu ziren azaltzen du. Tesian garaian ezagutzen ez ziren xehetasunak ematen ditu egileak. Besteak beste, Baionan Lapurdum zer den zehazten du, edo eta gaur Milafranga deitzen dena ez ote zen Basters-eko elizarekin lotua, oraiko Kanbo Azantza deitzen zela edo eta oraiko Itsasu Lesaka deitzen zela.

Hirugarren partea linguistikari dagokio eta bereziki ezaugarri fonetikoak aipatzen ditu, Gavelen eta Mitxelenaren lanak baliatuz. Azkenik izen ttipien zerrenda ematen du. Gehienik agertzen direnak Azenari, Berasko, Garzia, Otxoa, Sanz, Eneko, Xemen dira gizonetan. Emazte izen gutiago da: Andere, Anglesa, Condor, Tota. Azkenean, izengoitiak aipatzen ditu hala nola Johan Asmua, Guillemot Belça, Michelco Beretergaitz, Petri Biçarr, Anthoco Burubelz, Bernart Erbi, Berradeco Ergel, Joan Yputsa, Johane Macurra, Sancho Oyillasco...

Eta luzaz aipa genezake liburu honek ekartzen duen guzia. Agian egungo Euskal Herria ezagutu nahi duten irakurleak izanen ditu ugari.

Xarles Videgain